Hasteko, digitalizazioaren garaian gaudela, baliabide digitalak izango dira indargune nagusia. Horretarako, sare sozialetan (instagram, facebook, infojobs, linkedln, twitter..) publizitatea egitea eta hauek gure bezeroengana heltzeko ezinbesteko tresna izango litzateke, ikusi dugulako gaur egun ikastola, eskola edo institutu gehienek ere sare sozialak dituztela. Sare sozialak ere erabili ahal ditugu aurrerantzean gure proiektua aisialdira zabaltzen baldin bada. Horrez gain, web-orri nagusi bat egin beharko genuke, informazio orokorra bertan bilduko duena, bai enpresarena eta bai produktuarena (nortzuk garen eta gure balioak, ze kolektiborekin aritzen garen, arituko garen lurraldea, zein erakunderekin arituko garen lanean, baliabideei buruzko informazio orokorra…). Zerbitzu bat ematerako orduan, gure elkartearekin kontaktuan jarri ahal izateko, online zein presentzialki (leku batean) egongo gara.

Bulegoan bertan jasoko ditugu bezeroak, eta libre izango dira izan ditzaketen dudak eta galderak jasotzeko eta erantzuteko. Horretaz gain, bulegoaren bertan izango ditugu eskainiko dugun produktuari dagozkion material ezberdinak: triptiko eta posterrentzako materiala, ordenagailua, bideo eta liburuak formakuntzei begira… azpiegituren eta erreformen diseinuen planoak ere bertan landuko ditugu. Sare sozialak eta baliabide digitalak gure kontaktatzeko indar nagusia izan arren, telefonoa ere izango dugu lokalean bezeroek ere deitzeko aukera izan dezaten, haien dudak argitzeko edo informazio konkreturen bat emateko.

Web-orriaz gain, triptikoak eta posterrak sortuko ditugu lehenengo kontaktu bezala. Horretarako ikastola elkarte eta institutoeekin hitz egingo dugugure berri izateko, hau izango da gure lehenengo hartuemana eta aukera gehiago izateko gure produktua saltzeko. Haiekin emailez kontaktatuko dugu hasieran beraiekin gelditzeko, baina aurrerago bilera presentzialak egingo ditugu adostasunak sakontzeko, gutaz hobetu jakiteko eta proiektua hobetu saldu ahal izateko. Heziketa zentro hauei gure elkartearen berri emateko publizitate kanpaina bat egitea beharrezkoa da, eta zentro ezberdinei edo zentro hauek kudeaketan zerikusia duten elkarteekin (ikastolen elkartea, adibidez) kontaktuan jarriko ginateke emailez edo postaz triptikoak bidaliz. Horrez gain, posterrak eta triptikoak kultur etxe eta aretoetan itsatsiko ditugu

Gure kasuan, kanal zuzena izango da, saltzaile lan talde batek osatzen dugulako, gure jakintza eta ikasketa propioak direlako.

Heziketa zentro hauei gure elkartearen berri emateko publizitate kanpaina bat egitea beharrezkoa da, eta zentro ezberdinei edo zentro hauek kudeaketan zerikusia duten elkarteekin (ikastolen elkartea, adibidez) kontaktuan jarriko ginateke emailez edo postaz ekriptikoak bidaliz.

Hona hemen posterraren nondik norakoak:

